

# Noaua!!

H A M A B O S K A R I A

2000ko apirilaren 7a V.urtea

Usurbil, 87. zenbakia



**Angula ugari,  
motorrak ere bai**



## Txerrimunik ordainetan



Zorionak aita! Apirilaren 7an zure urtebetetze eguna da. Ea igandean zure kontura ospatzen dugun. Muxu pila bat ama, Oinatz eta Enekoren partez.



Beno, beno... 18 urte atzean gelditu diñun ta baen garaya 20 urte bete diñunala onartze-ko, prexioxa. Disfruta ezan gure oparixoa: gure golf-an bueltaxka. Aupa hi eta ondo pasau. Hire kuadrilakoak



Zorionak **Maddalen** eta urte askoan. Apirilaren 13an zure urtebetetze eguna denez muxu haundi bat guraso eta Xabierren partez.



Osaba hilobei zorionak eman nahi dizkiegu. **Joxeanek** apirilaren 1ean eta **Haritzek** apirilaren 3an bete zituzten urteak. Urte askoan etxekoan partetik.



Etxeko haundienak apirilaren 8an eta txikiak berriz apirilaren 9an urteak beteko dituzte. Zorionak **Luis Mari** eta **Saioa**. Etxekoak



Zorionak **Olatz!** Apirilaren 7an 3. urtebetzea. Jarraitu orain bezain alai. Muxu haundi bat Santuenetik.



Zorionak **Unai!** Apirilaren 4an 11 urte bete zenituen. Eguna ondo pasa zenuelakoan muxu haundi bat etxekoan partetik.

Hona hemen edonor zoriontzeko tartea. Bere urtebetetze eguna delako, ezkondu egin direlako edota tituluren bat lortu duelako dohainik, bazkide direnek nahiz ez direnek tarte hau erabili dezakete. Ekarri jarri beharreko festua eta argazkia.

Hurrengo alea: apirilaren 21a

Ekartzeko azken eguna: apirilaren 14a

### EUSKO TRENBIDEAKEN UDABERRIKO AUTOBUS ORDUTEGIA

#### ASTEGUNETAN

Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia
07.40	08.05	08.25	06.45	07.05	07.30
08.00	08.25	08.35**	07.15	07.35	08.00
08.40	09.05	09.25	07.45	08.05	08.30
09.00	09.30	09.40*	08.15	08.35	09.00
09.40	10.05	10.25	08.45	09.05	09.30
10.40	11.05	11.25	09.20**	09.30	10.00
11.40	12.05	12.25	09.45	10.05	10.30
12.00	12.25	12.35**	10.20*	10.30	11.00
12.40	13.05	13.25	10.45	11.05	11.30
13.00	13.30	13.40*	11.45	12.05	12.30
13.40	14.05	14.25	12.45	13.05	13.30
14.00	14.30	14.40**	13.20**	13.30	13.55
14.40	15.05	15.25	13.45	14.05	14.30
15.00	15.25	15.40*	14.20*	14.30	15.00
15.40	16.05	16.25	14.45	15.05	15.30
16.40	17.05	17.25	15.20**	15.30	15.55
17.40	18.05	18.25	15.45	16.05	16.30
18.00	18.30	18.40*	16.20**	16.30	17.00
18.40	19.05	19.25	16.45	17.05	17.30
19.00	19.25	19.35**	17.45	18.05	18.30
19.40	20.05	20.25	18.45	19.05	19.30
20.00	20.30	20.40*	19.20*	19.30	20.00
21.00	21.25	21.45	19.45	20.05	20.30
22.00	22.30	22.50	21.15	21.35	22.00

\*Oriaraino \*\*Aiaraino

\*Oriotik \*\*Aiatik

#### ASTEBURUTAN

Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia
07.30	07.55	08.15	06.45	07.05	07.30
08.30	08.55	09.15	07.45	08.05	08.30
09.30	09.55	10.15	08.45	09.05	09.30
10.30	10.55	11.15	09.45	10.05	10.30
11.30	11.55	12.15	10.45	11.05	11.30
12.30	12.55	13.15	11.45	12.05	12.30
13.30	13.55	14.15	12.45	13.05	13.30
14.30	14.55	15.15	13.45	14.05	14.30
15.30	15.55	16.15	14.45	15.05	15.30
16.30	16.55	17.15	15.45	16.05	16.30
17.30	17.55	18.15	16.45	17.05	17.30
18.30	18.55	18.15	17.45	18.05	18.30
19.30	19.55	19.15	18.45	19.05	19.30
20.30	20.55	20.15	19.45	20.05	20.30
21.30	21.55	21.15	20.45	21.05	21.30
22.30	22.55	22.15	21.45	22.05	22.30

## XABIER EDARITEGIA

Etor zaitetz,  
eta dasta itzazu  
Goierriko produktuak

X Idiazabal gazta  
X Beasaingo odolkiak...

Kontseju zarra, 13 ☎ 943 36 04 66

## TXURRUT TABERNA



Giro eta musika atsegina!

San Esteban kalea, 1  
Tel: 943 36 00 80

Kale Nagusia, 9 USURBIL  
Tlf. 943 37 33 48  
943 37 09 13

LABE-GOXO  
Olindegia - Gaztegia

**Argitaratzailea**

Noa! Kultur Elkarte  
Bordaberri 3 Eguzkitzaldea  
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)  
Tlf. eta faxa: 943 36 03 21  
E-mail: noa.k.e@euskalnet.net  
Web orria:  
<http://www.topagunea.com/noa/>

**Kazetarien koordinatzailea**

Josu Aranberri

**Kazetariak**

Josu Aranberri, Amagoia Mujika eta  
Agurtzane Solaberrieta

**Publizitatea**

Agurtzane Solaberrieta

**Kolaboratzaileak**

Ines Kamino, Iñaki Labaka, Iratxe Begiristain, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Alazne Begiristain, Zalaoa Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnaola, Olatz Goenaga, Urko Manterola, Eneko Harreguy, Karmele Urdanpilleta, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Andoni Udabe, Manuel Begiristain, Eukene Kamino, Olatz De Miguel, Jone Eizmendi, Jokin Zubiaur, Maria Jesus Urbieto, Iñaki Agirresarobe eta Mari Angeles Arruti.

**Administrazioa**

Arantxa Usarralde, Aitor Pikabea,  
Aintzane Aizpurua eta Nagore Gonzalez.

**Erredakzio Kontseilua:**

Josu Aranberri, Amagoia Mujika,  
Garikoitz Udabe eta Agurtzane Solaberrieta.

**Maketazioa eta diseinua**

Susana Martin, Aitziber Elortza, Olatz Goenaga eta Mertxe Gonzalez.

**Dokumentazioa**

Idoia Agirre, Aintzane Aizpurua, Leire Mujika, Leire Unanue eta Nagore Gonzalez

**Informatika**

Pili Lizaso eta Karlos Aizpurua

**Banaketa**

Mertxe Jimenez, Xabier Kamino, Txelo Vidal eta Iker Muguruza

**Elektrikaria**

Iñaki Salsamendi

**Tirada:** 2.600 ale

**Lege-Gordailua:** SS-668-96

**ISSN:** 1136-6818

**Inprimategia:** Antza

Noa! hamabostekariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako enanen eta iritzien erantzunkizunik.

**Noa! Kultur Elkarteko jendaurreko ordutegia:** 10.00-14.00 / 16.00-20.00 astegunetan

**Azala:**

Angulak edo txitxardinak harrapatzeko erabiltzen den motorretako bat

# Zer irizten?



## Birziklapena eta kontsumoa

Saioa Fernandez (Erizaintzako ikaslea)

Osasun Programa egiten hasi ginenetik, batek baino gehiagok galdetu digu ea zer egiten duten Erizaintzako zazpi ikaslek berziklapena eta kontsumoari buruzko datuak biltzen. Ba, erantzuna ez da batere zaila: unibertsitatean, gizarte talde bati (komunitatearen zati bati) zuzendutako osasun-programa bat egiteko eskatu zigiten Erizaintzak duen "gizartearekiko irakasle papera" eta inguruneak gure osasunean duen eragina lantzeko asmotan. Guk gaitzat "Hiriko hondakin solidoak: berziklapena eta kontsumoa gutxitzea" aukeratu genuen.

Gure programa hau aurrera eramateko orduan, hamaika urte dituzten haurrek gaiari buruz duten ezagupena jakin nahirik, Udarregi ikastolara, Oiarzungo Hautzaro ikastolara eta Ibai Lizeora jo genuen. Datuak bildu eta programaren egituraketa aurrera eramateko prest geunden. Martxoaren 24an Udarregi ikastolako bosgarren mailako haurrekin bildu ginen kiroldegian. Orduan nagusitu zitzaizkigun urduritasunak eta tripako minak.

Lehenengo, gure taldetxoaren aurkezpena egin genuen eta zenbait kontzeptu argitzen saiatu ginen, hala nola: kutsadura zer den, kutsadura motak, nondik sortzen den, berziklapena eta berziklapen ontzi ezberdinak, kontsumoa nola gutxitu dezakegun...

Ondoren, bosteko taldetan bildu eta hainbat ariketa landu genituen, gero talde guztiak bildu

eta erantzunak denon artean azaldu ondoren, jolas bat prestatu genuen: berziklatu daitezkeen materialekin lokotxak. Izen arraro xamarra duela pentsatuko duzue, baina jokua nahiko polita eta didaktikoa iruditu zitzaigun. Gakoa, latak, botilak, etabar, koloretako ontzi egokian sartzea zen. Honekin guztiarekin, Usurbilgo haurrei zertxobait gehiago irakatsi diegula espero dugu, orain helduei irakastea izango ote da gure lana?

OME-k (Osasunaren Munduko Erakundeak) "Osasuna denontzat 2000. urterako" proposatu zuen 1974an. Esaldi polita da, baina urte borobil hori ere iritsi zaigu eta argi dago, tamalez, hainbat lurraldek oraindik ez dutela eskubide hori. Askotan oso kutsatuak dauden hiriak ikusten ditugu telebistan eta kalek aldatzen dugu hori guri gertatuko ez zaigulakoan. Baina, inoiz jarri al gara gure ingurunera begira? Gure mendi, itsaso eta kaleak nola dauden ikusi al dugu? Batzuk, agian, bai, baina beste askok ez dugu behar adina zaintzen gure ingurunea eta honek gure osasunean eragina du: fabriketako keak, ur zikinak, kaleko zaborrak, zabortegi kontrolatu gabeak, zaborrak erretzetik sortutako keak, ...hainbat gaisotasun sor ditzateke eta azken finean, gu denok gara horren erantzule.

Honek hausnarketarako tarte-txoren bat mereziko du, ezta?

Bide batez, lerro hauen bidez eskerrak eman nahi genizkieke Udarregiko ikasle eta irakasleei.



Usurbilgo Udalak



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!

# Berriketan

## Gines Ybarra Amat



**Granadan jaio bazen ere, duela 45 urte etorri zen Euskal Herrira. Usurbilen oso ongi integratu zela dio eta barre artean aitortu digunez, bidaltzen ez badute behintzat, ez dauka bere jaioterrira bueltatzeko asmorik.**



### Non jaio zinen?

Granadan jaio nintzen.

### Noiz etorri zinen hona bizitzera?

Orain dela berrogeita bost urte etorri nintzen, baina hasieran Donostian egon nintzen eta duela hogeita hamaika urte etorri ginen Usurbila. Nere seme gazteena bakarrik jaio da Usurbilen, beste biak donostiarrak dira jaiotzez.

### Nolatan hartu zenuen hona etortzeko erabakia?

Nire arreba nire koinatarekin etorri zen eta denboraldi batez hemen egoteko proposamena egin zidan. Donostian egon nintzen eta soldaduska Madrilan egin ondoren, bueltatu egin nitzen. Hemen gainera lan egiteko aukera haundia zegoen.

### Eta Donostian egon ondoren, zergatik etorri zineten Usurbilera?

Holandan urte betez egin nuen lan gurgil lan-tegi batean eta handik denbora batera Michelinen jendea behar zutela esan zidaten, han hasi nintzen lanean eta Usurbilera etorri ginen bizitzera.

### Orain zertan aritzen zara?

58 urterekin jubilatatu nintzen eta erriberan daukadan baratzean ibiltzen naiz. Granadan egon nintzen azkeneko aldiaren limonondoak, laranjondoak eta txufak ekarri nituen landatzeko.

### Asko aldatu al da herria etorri zinetenetik gaur arte?

Bai. Gu Etxe-Aldian bizi ginen eta Olarriondo

eta Eguzkitzan etxe batzuk zeuden, baina Gaztañazpi inguruan gehiena baratzak ziren; Gaztañaga baserria, eta Bordatxo eta Xabier tabernak dauden etxeak bakarrik zeuden.

### Zure herrira joaten al zara?

Bai. Urtean hiru edo lau aldiz joaten gara, baina egun gutxi pasatzen ditut. Hau dena faltan botatzen dut han nagoenean. Gainera, familia hemen daukat eta bueltatzeko gogo ikaragarria izaten dut.

### Asko aldatu al da zure bizitza hemen zaudentetik?

Ni ja ez naiz gogoratzen hango bizitza nolakoa den. Bizitza hemen egin dut eta ni oso ezaguna izan naiz herrian: Mister Usurbil izan nintzen orain dela hamar bat urte. Zezenak zeudenean ere torero bezala ibiltzen nintzen eta lehen gaur egungo Udarregi ikastola inguruan egiten zirenean, harrapatu egin ninduen.

### Nola integatu zinen herrian? Erraza izan al zen?

Integratze erraza izan zen eta hala nago, baina hizkuntza zaila da. Nik lau hitz dakizkit, gehienbat lantegian ikasitakoak. Hala ere ez naiz inoiz diskriminaturik sentitu hizkuntzaren-gatik. Ni mundu guztiarekin ibiltzen naiz, ez daukat inongo arazorik. Dena den, egia da euskera jakinda gehiago integratzen zarela.

### Berriro ere Granadara bizitzera joateko asmorik ba al duzu?

Ez. Hemen geratuko naiz. Bidaltzen ez bagaituzte behintzat, ez gara joango.

Olatz Lasagabaster

# PATRI

## JATETXEA

Eguneko bazkariak  
eta afariak

Nagusia 6, 20170 Usurbil  
Tel.: 943 36 27 25 (Gipuzkoa)



## HERRIKO TABERNA



Astebukaeretan bokatak, plater  
konbinatuak, pintxo beroak...

Euskal presoak etxera!

Tel. 943 36 02 17

# ORBELDI

MARKEL OLAIZOLA  
ASEGURU AGENTEA / Zbk. 200009



## ESTRELLA

Aseguru Konpainia

Mota guztietako Aseguroak  
zure zerbitzurako

Zubiaurrena, 10  
Tel. 943 37 18 07- Fax.: 943 37 63 41

# TXOKOALDE

Olatz Goenaga



## Bi hitz gure auzoko zubiari buruz

**T**xokoaldeko zuba asfaltatu gabe utzi zuten bere garaian, konpondu beharra zegoela eta alperrik asfaltatzea izango zela esanaz.

Zubiak gero eta bidezulo gehiago ditu eta jarritako azkenengo asfalto txaplatak altxatzen ari dira; gainera euria egiten duenean putzuak sortzen dira. Oinezkoek, zubiaren alde batetik bestera pasatzeko, putzuetatik ihesi ibili behar izaten dute eta kotxeren bat ego-kituz gero zirripistindu gabe geratzea ia ezinezkoa da.

Bestalde, zubiak duen barandak ere pitzatzen eta okertzen ari da.

Zubi honetatik Usurbil aldera begiratzen badugu, ibaiak nolako azpilana egiten duen ikus dezakegu; ibaia ibai bazterreko lurak eramaten ari da, lurjauzia sortuz. Honen ondorioz, Platano zuhaitzak uretaruntz okertzen ari dira. Kontuan izan orain zuhaitzak pisurik gabe daudela, baina udaberria aurrera joan ahala, hostoak



ateratzen hasiko zaizkie, pisu gehiago hartuko dute eta gehiago eroriko dira. Ez daukagu, beraz, panorama oso txukuna!

# KALFERRI

## Duela zortzi urte...

**G**aztetxearen inguruan badira hainbat albiste: berria egin behar dela, beste dinamika bat eman behar zaio-la herriari pizkunde bat eman diezaion, baina oraingoan data bat aipatzera noa.

Udarregi Zaharrean dagoen Belmont Gaztetxearen I. urtemugaren jaiaren barnean, bertso jaialdi bat ospatu zen 1992ko apirilaren 25ean, honako bertsolariak zirelarik: Mikel Lartzabal, Nikolas Izeta, Ibai Esosain eta Xabier Sukia. Gai jar-tzaile lanetan Kerman Errekondo aritu zen. Hainbat gairen artean Nikolas Izetari

“gaztetxearen lehen urtemuga” gaia ipini zionean, honako bertsoa bota zuen:

**Bertso kantura etorri gera  
gaur danak borondatian,  
gure Belmontek kunplitu duen  
lehendabiziko urtian,  
gure Kalexarren izena du  
Usurbileko partian,  
ez det pentsatzen izango danik  
gazteentzako kaltian,  
gutxin-gutxinez iraun dezala  
gaztiak zahartu artian.**

Bestalde, Zumarte musika eskolak gonbidaturik Katalunia-ko abesbatza izan genuen mar-

Iñaki Agirresarobe



txoaren 25ean Salbatore elizan. Leporaino beterik, batak zein beste abesbatzak giro ezin opa-roagoa eta aberatsagoa lortu zuten. Honelako topaketek herrien arteko kultur aberastasuna sendotzen eta bultzatzen dute. Beraz, herri txikien ahotsa entzun dadin honelako ekintzek laguntza eskaintzen eta bidea zabaltzen dute.

Azkenik, Euskotren autobusa-ren geltokiaren leku aldaketa aipau behar. Donostiatik Zarautza datorren norabidean elizaren aurrean du geltokia. Beraz, oraindik udaletxe aurrera dozenak baldin badaude, badakite non duten aterpe berria.

# KALEZAR

## San Juan usainean...

**D**agoeneko apirila izanik, San Juan usaina ere gerturatzeko ari da, eguraldi ona eta egun luzeak besterik ez dira falta. Udako lehenengo

festak direnez, denok irrikitan egoten gara, egun seinlatu hauek noiz iritsiko zain.

Aurrerapen gisa zera esango dut; aurten bi asteburu izango dira, ekainaren 16, 17 eta 18a eta 23, 24 eta 25a. Hau dela eta, nahikoa egun izango ditugu guztiok festei etekina ateratzeko.

Aurten ere, ohitura zaharrari eutsiz, San Juan eskea eta San Juan sua izango dira, ez du garai batean

Urko Manterola



sasie su eman eta izaten zuen itxura, baina hau ere sua da.

Ohitura zaharrekin jarraituz, aurten aspaldiko urteetan galdutako ohitura bat berreskuratzeke asmoa du Kalezarko Jai Batzordeak, "San Rokeak". Lehen izaten ziren, baina aspaldiko urteetan ez dira ospatzen eta ohitura hori indartzeko asmoa dugu.

Bestalde, lehen entzun nuen, Udalak galerazi egin zuen obretako kamioiak Usasku aldetik Ibarrolara zaborrak botatzera joatea. Hau honela bada, nik ez dakit Udala nora begira ari den, berriz ere hasi baitira hemendik pasatzen.



# ATXEGALDE

## Etxebizitzen prezioak goraka

Maria Jesus Urbieta



**B**etidanik entzun izan dugu Euskal Herria garestia dela, Espainia mailan garestienetako bat, Madril eta Kataluniarekin batera.

Azken urte hauetan hau garbi ikusten ari gara, batez ere etxebizitza baten beharrean aurkitzen garenean, hauen prezioak noraino igo diren ikus ahal dezakegu. Gure auzoan ere horixe gertatzen ari da. Orain dela hogeitatu urte, hona etorri ginenean, etxebizitza batek bi milioi inguru balio zuen. Orduan ere asko zela iruditzen zitzaigun eta ordutik hona igoera handiak izan dira.

Adibidez, duela hiru bat urte, hamaika eta hamahiru milioi ingurutan zebiltzan etxebizitzen prezioak. Gaur egun, hogeitatu milioitik gora eskatzen omen dira.

Honek honela jarraituz gero izugarriko arazoak izan ditzakegu. Izan ere, orain bankuetxeek beren maileguak jaitsi dituzte eta jendea errazago animatzen da etxebizitza bat erostera. Baina, hala ere, lehen bi milioiko maileguei aurre egin

behar eta orain 20 milioikoei, ez al gara berdin-berdin harra-paturik gelditzen?

Gure gazteek ez daukate lan erraza, ez horixe! Baina bitartean aurrera jarraitu behar!



# SANTUENEA

## Uholdearen arriskua

**A**uzoko jendea kezkatuta dabil Atallu industrialdea garatu egin behar dela eta. Bidezkoa iruditzen zait kezkatuta egotea, 83an gertatutakoa ezagutu eta gero.

Denok dakigu auzoa urpean geratzeko arriskuan egon dai-



tekeela. Baina, Atallu industrialdea garatzen baldin bada eta 83ko uholdea etortzen bada, zer gertatu daiteke?, da benetakoa galdera.

Galdera honen aurrean, hitzak besterik ez daude, batzuk urak dena hartuko lukeela, besteak sarraskia ez litzatekeela txikiagoa izango baina dakiguna, ziur, ezer ez dakigula da.

Bizitzako une askotan bezala, gai honetan ere bi aukera topatzen dira: Industrialdea hau garatzeak auzoan sortu ditzakeen kalteak batetik, eta garatzen ez bada herriko enpresa batzuek

beren iharduera handitzen joateko zailtasunak edo herritik kanpora joan behar izateak bestetik. Hau da udaletxeko alderdiengan sortu den kezka nagusia.

Dena den garatu daitekeen ala ez, bere garaian erabaki zuten eta baiezkoa izan zen. Baina egin beharko litzatekeen ibaiak jar ditzaken oztopoak kendu edo gutxitzea da. Orbeldiko presa, Ingemarko presa, Trenbideko zubia aldatu, ibaia garbitu eta dragatu, eta egin daitekeena egitea.

Bukatzekeo galdera bat sortu zait. Ingemar egiten ari den hesia, ez al da urarentzat edo ibaiarentzat oztopo izango?

Agustin Esnaola



# URDAIAGA

## Auzoa haunditzen

**N**ahiz eta gure auzoa oso txikia izan etorkizuneko auzoa dela iruditzen zait. Bertan, nahiz eta etxebizitza gutxi izan, haur eta gazte dexente baikaude.

Orain arte ez nintzen konturatu baina, lehengo batean, goizero-goizero bezala, Ikastolara joaten den autobusarekin egin nuen topo eta, bertan, 8-10 bat neska-mutiko igo ziren.

Duela urte batzuk haur baka-raren bila etotzen zen autobusa, baina, hala eta guztiz ere, inoiz ez da haur faltarik izan, eta ez da izango datozen urteetan ere, gero eta haur gehia-

go jaiotzen baitira gure auzo honetan. Pozgarria da auzoa betetzen ari dela jakitea eta ez hustutzen bakarrik, azken urte hauetan gertatzen ari zen bezala.

Baina, oraindik, ulertzen ez dudana gauza bat bada: ni Ikastolan nenbilen garaian, eguraldi txarra egiten zuenerako txabolatxo bat behar genuela esanaz eskaerak egin genituen, baina oraindik ez da txabolatxorik ageri inguru hauetan. Badakit honelako eskaerak Udalari egin behar zaizkiola, dena dela, jakin nahi

Eider Jauregi



nuke auzotarrek beharrezkotzat jotzen duten eskaera hau egitea. Horrela izango balitz, esan eta idatzi bat bidaliko genuke Udaletxera txabola berria egiteko proiektua azter dezaten.



# AGINAGA

## Autobuseko hausnarketak

**B**urutu berri dudan La Mancha alderako bidaiak gure ingurunean ematen diren aldaketak behatzera bultzatu nau. Gure auzokide Xomorrorekin 40 minutuko bixita eta denari buruz hitz egin nahi, hau komeria! Auzoan zer berri den eta eraikuntza berriei buruz mintzatu ginen, funtzionarioak berarekin eraman zuen arte. Meritua, berrogei minutuko bixita egitearren asteburueror 1400 km. edo gehiago egi-ten dituzten zahar eta gazteena!

Ondoren, 20 eserleku dituen mikrobusean sartu eta bueltako bidea hartu genuenean konturatu nintzen ez dugula gure ingurunean ematen ari

diren aldaketak behatzeko denborarik hartzen. Azken hamarkada honetan auzoak izan dituen aldaketak asko izan dira, besteak beste: baserrien zaharberritze ugari, eskola txikiaren aldaketa, eliza zaharren berritzea, etxebizitza berriak, pabiloiak, komertzioen berritzea, lokalen berritzea, hirugarren adinekoen irteerak...

Mikrobusetik jeitsi eta Eusko Treneko autobusa hartu ahal izan nuen. Izan ere, martxoaren 4az geroztik autobus zerbitzu berriak ezarri dituzte larunbat gauetarako, iazko udan bezala. Zerbitzuak ondorengoak dira: Zumaitik Donostira 23:00tan, gaueko ordubatean eta goizaldeko bostetan.

Iratxe Begiritsian



Donostiatik Zumaira, berriz, gauerdian eta goizaldeko ordubietan, lauretan eta seietan.

Gainera, zenbait auzokidek buruturiko presioaren ondorioz Errastin geldialdia egingo dute autobusek, hasieran hala zehaztua ez bazegoen ere.



# ZUBIETA

## Zubieta Pilota Elkartearen Batzarra

**D**atorren apirilaren 15ean, eskola txikiko aretoan, Zubieta Pilota Elkartearen urteko ohiko Batzarra izango da, goizeko hamaiketan hasita. Bertan, 1999ko balantzea egingo da eta 2000. urteko egitasmoak azalduko dira. Hau izango da zehatz-mehatz gai zerrenda:

- 1999ko Batzarraren aktaren irakurketa eta onespena.
- 1999ko kontuen eta 2000ko aurrekontuen onespena.
- Kuota igoeraren proposamena eta onespena.
- Jardueraren memoria eta


proiektuen berri ematea.

- Ondarearen gestioa.
- Zuzendari-Batzordearen aukeraketa.
- Galdera eta Eskakerak.

Beraz, bazkide guztiei bertara azaltzea eskatuko nieke.

Bestalde, egun hauetan berri bitxi bat izan da Zubietan. Izan ere, **Etxeberriko Erramunek** arbi erraldoi bat atera du erriberako bere baratzeatik. Izan ere, landareak bederatzi kilo eman ditu pisuan eta metro beteko zirkunferentzia du. Beraz, uzta ona izan dugu Zubietan, eta norbaitek marka hau haustea

espero badu, eraman dezala Juan Inaxioren sagardotegira, han baitago landarea ikusgai.



Mikel Bengoetxea



## Herriko jolas-parkeetako arriskuak

**B**anuen gogoia Usurbilgo frontoi-atzean dagoen jolas parkeaz zerbaiz idazteko eta hara nola Eroski taldeak argitaratzen duen Consumer aldizkariaren azken alea irakurtzeak azken bultzada eman didan karta hau plazaratzeko. Ume txikiak ditugun gurasoek dauzkagun kezka ugarien arteko bat, geure umeez jolas parkeetan ibiltzen direnean izaten dituzten arriskuak ikusi eta sufritzea izaten da.

Benetan adierazgarriak izan dira Consumer aldizkariak bildutako emaitzak. Euskal Herriko nahiz Espainiako zenbait probintzietako 101 parkeetan aztertutako 490 jolas aparatuetatik %36k umearen segurtasuna arriskuan jartzen zuen akats larriren bat zeukan. Akats larri aipagarrienak hauek izan ziren: ebakiak sortu ditzaketan apurtutako zatiak, lotura galdu duten parteak, eztopozoak eta urradurak eta kolpeak eragin ditzaketan tornillo eta burdinezko irtenguneak, babesik gabeko altuera handiak, zolu gogorregiak, inguruan segurtasun eremuak edo mugak ez edukitzea, etab. Bestalde aparatuen %67k mantenimendu gabeziak zeuzkaten.

Guzti hori irakurri ondoren ikus ditzagun Usurbilen dauzkagun jolas parkeak eta konfiantzarako gara emaitzak ez direla hobeak izango (*Noaua!*



aldizkariak erreportaia bat egin dezake), baina benetan kezkarriena Kaxkoan, frontoi-atzean daukagun parkearen egoera da: txirrista handiak zorabioa sortzeko moduko altuera du eta beheraino irteterako umeez frenatuta gelditzen badira ere, azkenean lurrreraino altuera haundia dago; burdinezko kaiolak eta zubiak buruko kankarreko ugari sortzen ditu eta badira zubitik behera eroritako umeez, gainera zolua harri gogorrezkoa denez kolpea oraindik eta haundiagoa izaten da. Bestalde kontuan eduki beharrezkoa da ondotik trafiko handia pasatzen dela eta umeez ez duela mugarik aurkitzen zuzenean karreterara joateko.

Badira antzeko akatsak herriko beste jolas-parkeetan ere baina ezin hasiko naiz

denak aipatzen aurrekoarekin nahikoa delakoan.

Beraz, honako eskaerak egin nahi nizkieke udaletxean gai honetaz arduratzen direnei: frontoi-atzea trafikoari itxi egin behar zaio betirako (ez aste-bukaeretan bakarrik), jolas-parkea birmoldatu egin behar da, txirrista handia eta burdinezko kaiola eta zubia kendu, eta egurrezko nahiz plastikozko materialez egindakoak jarri eta aparatuen azpian kautxo edo antzeko materialak jarri. Bestaldetik gutxieneko mantenimendu bat egitea ere beharrezkoa da.

Espero dezagun eskaera hauek kontuan hartuak izango direla geure umeen onerako. Aurretik eskerrak.

**Joxe Ramon Furundarena**  
**NAN: 15950049**



ARRAINDEGIA  
**PELLO**



Arizeta Kalea, 1  
 Tif 36 21 64  
 USURBIL



## LATAILLADE

ITURGINTZA GAS ETA BEROGINTZA  
 INSTALAKUNTZAK

ARIZTITXO KALEA, 8 BEHERA  
 20170 USURBIL

TLF: (943) 36 26 35- 36 33 48  
 Mobila: 609 888021

## TXARO ARTZE ILEAPAINDEGIA

**Buru-azalaren zainketa**  
**Ile-apainketa**

Etxebeste, 3

Tel. 37 16 85

# Angulak desagertzeko arriskuan ote daude?



**A**zken urteetan angula edo txitxardina gero eta gutxiago harrapatzen zela eta kezkatuta zeuden anguleroak. Ez harrapatu, ez jan... angula agortzen hasia zela ere esaten zuten adituak. Aurtan, ordea, ezustean, angula Oria ibaian gora erruz etorri da. Sekula baino gehiago harrapatu omen dute. Hala ere, adituen esanetan angula desagertzeko arrisku handia omen dago. Egia ote?

Angula animalia misteriotsua dela entzun izan dugu askotan, ezer gutxi baitakigu bere bizitzaz. Sagarzoen itsasoan jaio, eta zazpi milimetro dituela Golkoko korronteen bidez gureganako bidaia hasten du. Hiru urte behar ditu Atlantikoko ozeanoa zeharkatu eta guganaino iristeko. Bidaia hori larba moduan egiten du, baina itsasotik ibaira sartzear dagoelarik guk ezagutzen dugun itxura hartzen dute, zazpi zentimetro ingurukoak bihurtzen dira.

Anguleroen hatzaparretatik ihes egitea lortzen badute, Oria ibaian hor ibiliko dira gora

eta behera. Urtebetean aingira helduak bihurtu eta ibaian 10-20 urtez bizi ondoren, ur gazitan edo gezatan ondo moldatzen den zilar koloreko aingira bilakatzean, berriz ere jaiolekura joaten dira, Sagarzoko itsasora. Bidaian zehar heldutasun sexuala lortu eta ziklo berri bati hasiera emango diote.

Azken urteetan ziklo hau apurtzen ari dela esaten duten adituak gero eta gehiago dira. Txitxardina eta aingiraren desagertzearen arriskua haunditzen ari dela eta, European Komisioari espezie hau babesteko neurriak har-



**Gero eta motor gehiago ikusten dira Oria Ibaian angula garaien**

tzeko eskatu zuen iaz El Grupo Europeo para la conservación de las pequeñas pesquerías (GECP) delakoak. Angularen harrapaketak urtetik urtera gutxituz doazela diote hauek (aurtengo kasua ez bada ere). "1997-98an inoiz baino angula gutxiago harrapatu zen: aurreko urteetan baino %60a gutxiago".

Biologoaren esanetan txitxardinaren gehiegizko esplotazioa da espezie honen harrapaketa gutxitu izanaren arrazoi nagusia. 90. hamarkada arte etxean jateko, edota kalean saltzeko harrapatzen zen, baina azken hamarkadan esportatzeko joera asko zabaldu da Aginagako angula enpresen artean. Prezioek gorunzko joera hartu dute, eta angula bila dabilzan untiak ere ugaritu egin dira.


### **Asian 120.000 tonelada aingira jaten dira**

Japon eta Txinatik dagoen angularen eskaera handia izan da azken hiru urteetan. Asian urtean 120.000 tonelada aingira kontsumitzen dira eta japoniar aingiraren arrantza neurrigabearen ondorioz espezie honen ugalketa arriskuan jarri dute. Horregatik Europara begira jarri ziren asiarrak. Bi herrialde hauek urrezko prezioan erosten dute oraindik bizirik dagoen angula; gero

### **Europatik Asiatik hegazkinez eraman dituzten angularen erdiak bidean hiltzen dira**

haztegieta hazi, gizendu eta aingira bihurtzeko.

Gure ibaian harrapatutako angularen erdia, ordea, bidean hiltzen da. 1998an 750 milioi angula eraman ziren Europatik Asiatik, horietatik 350 milioi hegazkinez hil zirela kalkulatu da. Angula hauek kaja berezietan eta izotzarekin jartzen badituzte ere, presio atmosferiko ezberdinen ondorioz hegazkinean hiltzen dira.



Oria ibaiko txitxardinek Japoniakoaren bide bera hartuko duen beldur dira adituak. Azken urteetan angularen harrapaketa gutxitu dela diote Aginagako anguleroek, eta inguru honetan hain preziatua izan den animalia txiki hori desagertzear egongo balitz?

Honen aurrean neurri batzuk hartu behar direla diote biologoek. Txina, EEBB eta Australiak angula bizien esportazioa debekatu dute ja, eta European Portugal, Irlanda, Holanda eta Dinamarkak murrizketak ezarri dituzte. Neurri hauek hegazkinez bidalitako angularen gutxitzea ekarri badute ere (bi tonelada baino gehiagoko bidalketak gero eta gutxiago dira), komertzioa arrantzaleen eskuetara pasa da zuzenean. Hauek kilo gutxiago bidaltzen dituzte, beste aire-bide batzuetatik. Angula kilo bakoitzeko ordaintzen diren ia 350 dolarrek (40.000 pezeta) ezkurtuko arrantza bultzatzen dute.

Angularen gehiegizko harrapaketa honen biziraupena mehatxatzen duenez arrantza erregulatu beharra ikusi da. Europako estatu bakoitzak du angularen gaiaren inguruko eskuduntza. Bost estatuek txitxardinaren arrantza komertziala debekatu dute eta sei garren batean lurralde mailako debekua dago. Angulak


# Noqua!!

H A M A B O S K A R I A

## Etxeko dekoraziorako herrian baduzu aukera



**TXIMINIA  
ALTZARIAK**



### **ALTZARIAK AUKERAN**

**1.000 metroko erakusketa- Prezio harrigarriak**

**Punta-puntako markak %50ean: Alzari-trinko, lastaira eta  
lastaira-azpikoen aukera haundia**

**Sofa eta besaulkiak, logelak, aulkiak, mahaiak**


**Ehundaka altzairu %50ean**

**Mailatu txikiekin eta gabekoak**

**Osinalde poligonoa**

**Tel.: 943 37 09 66**

# *Aranburu biberoa*




Barruko  
landareak  
zure etxea dekoratzeko

Villa Aingeru Tlf: 943 36 64 60  
Aginaga

## MARGOAK- PAPERAK

# FERNANDO PINTURAK

ENPAPELAKETAK ETA  
PINTURAK OROKORREAN



Kale Nagusia, 1  
Tlf: 36 60 19- 36 34 60


loredendak

bainudendak

pinturak

ITURGINDEGIA


# PORTUCARRUME



Bainuko  
altzariak  
zure etxerako!

Kale nagusia, 2 Tlf: 36 52 99

**ALUMINIOZKO  
ARROZTEGIA  
ALUAL, S.L.**



Ugaldea Industrialdea 20 behea  
Telf: 943 37 05 06- Fax: 943 37 05 50

**ZURGINDEGIA**

**BEREZIARTUA**  
**UNIFORM**



**Egurra eta  
egurra-aluminioa  
LEIHOAK**

**Izpira Etxe. AGINAGA**

**Tel: 943 37 15 71 Faxes: 943 36 01 59**

leihoak, atepak

haltzariak

etxetresnak



**LEIHO- FABRIKATZAILE  
ONENA**

*Itxitura mota  
guztietan espezializatua*

**VENTANAS  
SAN MIGUEL**

OSINA KALEA, 6  
943/ 36 24 57  
20170 USURBIL

## **ARGILAN**

Etxetresna elektrikoan  
aukera zabala

Kontzeju zaharra, 13

Tlf: 36 13 80

## **BAYMUE**

**Etxetresna elektrikoak**  
Bainugelak,  
sukaldeko altzariak eta tresnak  
eta opariak

Zubiaurrenea, 3

telf: 37 22 42

## ***Urtinea Elkartea***



San Esteban  
Tlf: 943 36 22 55

**Loreak- lore lendareak-  
lore sortak- koroak**

Gida honetan azaldu nahi baduzu  
deitu Noaua!-ko telefonora:  
943 36 03 21



jateko harrapatzen diren estatuetan ez dago debekurik, baina arrantza modu, denboraldi eta arrantza lizentzia eta komertzializazio kontrolak daude. Frantzia adibidez, profesionalak bakarrik dute angulak arrantzatzeko eskubidea eta honek liskar ugari sortu ditu iparraldean. Pasa den urteko azaroan angula arrantzale profesional batzuen bi ontziri su eman zioten angula gerraren beste kapitulutzat hartua izan zen gertakarian.

### Angula harrapatzeko legea bidean da

Euskal Herrian ez dago angularen inguruko araudirik. Edonork nahi adina angula harrapatu ditzake eta horren adibide argia da denboraldi honetan Oria ibaian gora eta behe- ra ibili diren 50 ontzi baino gehiagoren kasua. Hala ere, baldintza batzuk jarriak daude: angula nola arrantzatu daitekeen, lurretik edo itsasotik harrapatu daitezkeela, tranpa edo sare haundiak debekatuta daude, arrantzaleek itsasoan angula harrapatzeko lehentasuna dute... Baina oraindik honek ez du legerik.

### Angularen inguruan Euskal Herrian ez dago oraindik araudirik. Lege hori egiten ari dira

Eusko Jaurlaritzak angularen arrantzaren inguruan neurriak hartzekoa da. Aurreproiektu bat egin omen dago, baina aurrera egin aurretik ondo aztertu nahi dute gaia. Proposamenak badaude, baina ez dira oraindik lege bihurtu. Eta ez dira laister batean bihurtuko, luzerako dihoala esan digute eta.

Josu Aranberri

## Aurten azken urteetan baino angula gehiago harrapatu da Aginagan



Bazterretik ere angula asko harrapatu omen da aurten

*"Angula asko sartu da aurten, sekula baino gehiago"* zioen **Manuel Aizpuruak** berekin hitz egitera joan ginenean. Azken urteetako panorama ikusita angula gutxi izango zenaren beldur ziren angulero guztiak, baina hain misterio-tsua den sugetxo hori etengabe igo da Oria ibaian gora. Zergatik? Hori angula beraiei galdetu beharko. Manuelen esanetan hori dakienik ez da jaio oraindik. *"Urte batzuetan ondo sartzen da, hurrengoan berriz ez da batere sartzen. Nik dakidana da ibaira sartuz gero, lehenxeago edo geroxeago, han edo hemen harrapatua izango dela"*.

Izan ere angulak harrapatu nahian gero eta jende gehiago hurbiltzen da Oria ibaira. *"Nik motorrezko 56 unti zenbatu nituen gau batean. Lekurik gabe baia sartu ezinik ere ibili gara batzuetan"* dio Manuelek. Batipat Orioko jendea ibiltzen omen da untziekin. Aginagatik hiru motor bakarrik ibiltzen dira, **Gatzeluko anaiak, Patxi Mayoz eta Manuel Aizpuru**

bera. Beste guztiak oriotarrak omen dira.

Bazterrean angula harrapatzen ibiltzen direnen artean ere tirabira ugari izan dira azken hilabeteetan. Leku onena hartu nahian jendea anguletan hasi baino ordu batzuk lehenago zain egon izan da aurtengo neguan.

Hala ere, denentzat angula izan da aurtengoan. Gau batean 29 kilo harrapatu dituenik bada eta bazterretik ere 9 kilo inguru hartu dituzte zenbaitek. **Manuel Aizpuruak** 6 kiloko gaua izan da gehien harrapatu duena. *"hiru kilotik seira ibili gara gau gehiengotan, abenduko uraldian 25 kilo inguru eta urtarrilekoan 35. Behin baino gehiagotan pasa izan zait angula gehien harrapatzen ari ginenean lanera joan beharra"*.


Prezioz ere poliki ibili dira. *"Hasieran 16.000 pezeta ordaintzen zizkiguten, baina gero 35.000 pezeta ordaintzera ere iritsi dira angula enpresak"*.

## Donostian hilda aurkitutako balea Usurbilen lurperatu dute

**P**asa den martxoaren 30ean sei bat metroko bale eme bat hilda topatu zuten Igeldo mendiaren parean Eusko Jaurlaritzako txalupa batek. Aquirumeko langileek itsaso zabaletik lehorrera ekarri zuten soka batetik buztana txalupari lotuta lehorrera ekarri ondoren, Arratzain aldean, Aitzondo baserriaren ondoan lurperatu zuten.

"Rorcual aliblanco" espezieko bale gazte hau Aitzondo baserri ondoan egongo da lurperatuta urtebetez. Izan ere, denbora hori pasa ondoren animalia hezurra besterik ez da izango eta orduan hezur-dura hartu, garbitu eta Aquariumean ikusgai jarriko dute orain arte dagoen beste bale haundiago baten hezur-duraren ondoan.

Igeldo mendiaren parean eguneroko gainbegirada ematen ari zen Argi untzi-koek topatu zuten bale kume hau. Balea hilda ikusi eta Aquariumera deitu zuten animalia berri emanez, eta hemengo langileek azterketak egin ondoren buztana itsasontzi bati lotuta lehorrera ekarri zuten.



Aquariumeko langileek esan zuten 15 bat egun zeramatzan hilda eta hezur batzuk ere ikusten zitzaizkion. Izan ere, usteltzen hasia zegoen itsaso zabalean topatu zutenean.

Honelako bale bat kosta aldean ikustea ez da ohikoa. Udaberri hasieran Bizkaiko golkoan baleak ikusi izan dira,

baina beti ere itsaso zabalean. Kostaldean hildako baleak topatzea ordea, ez da askotan gertatzen den zerbait. Azkena Bizkaian lehorreratu zuten 1994an, eta Gipuzkoan 10 urte baino gehiago pasa dira honelako bale bat ikusi zenetik.

Heriotza zerk eragin zion ez dago garbi. Balearen laginak hartu eta laborategira eramanez zituzten aztertzera, baina **Isabel Guzman** teknikariaren arabera ugari izan daitezke balea hil duten arrazoiak: ontzi baten kontra jo izana, kutsadura, gaixotasuna, marrazo baten eraso...

**Josu Aranberri**



*Aitzondo baserri inguruan lurperatu dute balea*

Iturgintza - Gasa - Berokuntza



**J. Orbegozo**



Bizkarra 1, 1.esk.

☎ 37 29 37 - 36 59 26

**gorriti**  
EDARITEGIA

**kafe berezia**

San Esteban kalea, 8  
TLF 36 27 70

20170  
USURBIL

### Futbito Txapelketa martxan da

Usurbilgo Gazte Asanbladak antolatutako futbito txapelketa ostiral honetan hasiko da. Garai batean sortzen zen giro aparta berreskuratzeko aukera izango da oraingoan. 16 urtez gorakoetan, 20 taldek eman dute izena; 4 neska talde, bat edo bi mistoak eta gainontze-koak mutilez osatuak. Gaztetxoetan, berriz, lau talde baino ez dira animatu txapelketan parte hartzera. Partiduak ostiral gauetan eta larunbat arratsalde zein gauean jokatu dira herriko frontoian.



Pasa den hilaren 1ean, larunbata, **Nikolas Pizetaren** omenaldia izan zen Udarregi Ikastolan. Jende mordoia bildu zen Nikolasen omenez eta argi geratu zen lagun asko zituela. Omenaldi beroa eta hunkigarria izan zen, inork ez zuen huts egin nahi izan. **Bota Punttuba** bertso eskolakoek, Udarregiko irakasle den **Mendi** eta bere ikasle batzuen laguntzaz, modu txukunean kantatu zituzten Nikolasek idatzitako zenbait bertso. Bertso mundu-ko aurpegi ezagun asko ere han zen.

### Urtebeteko kargu uztea eta isuna

Aurreko ale batean aurreratu genuen bezala ustekabeko sententzia jaso zuen **Joxe Antonio Altuna** alkateak udal intsumisioaren auzian. Dagoeneko sententzia esku artean dute eta orduan aurreratu genuen bezala urtebetez kargu publikorik ez betetzea eta 250.000 pezetako isuna izan da herriko alkateari 1995ean Espainiako armadarekin ez kolaboratzeagatik jarri dioten zigorra. Sententzia honen aurrean errekurtsioa jartzeko asmoa dutela azaldu digu alkateak.



Eskez pelota txapelketen ondoren pala txapelketa hasteko garaia iritsi da. Azken partiduak Santixabeletan izaten badira ere kanporaketak aurretik jokatu beharra daude, eta dagoeneko parte hartu nahi duten bikote guztiek izena eman dezakete. Benta, Txiriboga eta Aitzaga tabernetan duzue horretarako aukera. Apirilaren 13an amaituko da izen emateko epea eta bikote bakoitzak 2.000 pezeta ordaindu beharko du. Bilera, berriz, apirilaren 14an izango da.



Txaramunton etxeak egiten hasi direnetik autobus geltokiak lekuz aldatu dituzte. Donostia aldera joateko Zumarte Musika Eskolan hartu behar da autobusa. Hemen leku estali bat jarri zuten euria egiten duenean babesteko. Aginaga aldera joateko, berriz, oraintsu arte udaletxe aurrean, Joxe Martin Sagardia plazan hartu behar izaten zen autobusa, baina orain kale nagusian, Salbatore parrokiaren aurrera pasa dute geltokia.

Pinturas  
lon



Urtinea Elkarteak

Loreak - Lore landareak

Lore sortak - Koroak

San Esteban

Tlf.: 943 36 22 55

**ALBORTA**

**HARATEGIA**

Etxeko berezitasunak:

- Oholkiak
- Txorixoak
- Kroketa...

Behoko kalea, 4

Atxegalde 943 36 57 42

# David Asensiok lehen mailan debutatu zuen Atletico Madriden aurka

**B**erak ere ez zuen espero. Azken aldian lesioei aurre hartu ezinik zebilen eta Athletic-en bigarren taldean ere ez zuen aspaldi jokatu. Bapatean, ordea, lehen mailan debuta egin du David Asensiok. Pasa den apirilaren 2an Athletic-ek Atletico de Madrid-en aurka Vicente Calderon zelaian jokatu zuen neurketan hasierako hamaitakakoan izan zen usurbildarra.

Bi astetan gauzak asko aldatu dira Davidentzat. Martxoaren 25-26ko futbol jardunaldian ez zuten 2.B mailako taldeko deialdian sartu eta hurrengo astean berriz Vicente Calderon futbol zelaian zen Kiko, Gamarra, Valeron, Joseba Etxeberria eta beste futbolari haundi askoren ondoran.

Izan ere, usurbildarrak Athletic-ekin lehen mailan debuta egin zuen gutxien espero zuenean. Luis Fernandezek lehen mailako taldeko zerrenda sartu zuen ustekabea, eta ustekabea haundiagoa izan zen hasieratik jokatu zuela jakin genuenean.

35 zenbakia bizkarrean zuela zelairatu zen. Joseba Etxeberria eta biak Athletic-en aurrekaldean izan ziren. Ez zituen baloi asko ukitu, baina baloia lotsagabe eskatu zuen



jokatu zuen bitartean. Futbol zelaiaren egoera ere oztopoa izan zen Davidentzat, putzuz betea baitzegoen eta zaila zen bertan jokatzeko. Honela bada, 54. minutuan aldatu zuen entrenatzaileak.

Atletico de Madridek eta Athletic-ek jokatu zuten partidua ikusmin haundia sortu zuen herrian. Canal Plus telebista katean eman zuten neurketa eta herriko tabernetan jende ugari egon zen parti-

duari eta noski, usurbildarrari begira. Haurrek, gazteek eta helduek adi adi jarraitu zituzten David Asensioen mugimendu guztiak.

Lehen mailan debuta egin aurretik, ordea, Athletic-eko lehenengo taldearekin jokatu zuen pasa den martxoaren 28an Parisen Red Star taldearen 100. urteurrenako torneoaren 45 minutuko bi partidu jokatu zituzten eta lehenengo neurketan parte hartu ez bazuen ere Saint Etienne taldearen aurka jokatu zuten partiduan hamaikakoan izan zen usurbildarra. Partidu hau 2-1 galdutuz, baina Davidek sartu zuen Athletic-en gola eta gol horri esker beraiantzat izan zen txapelketa.

Josu Aranberri

**2.B mailako taldean ez jokatzetik lehen mailan jokatzera pasada David aste batean**

IGELTSERITZA

**URDANTZI, C. B.**

Mugikorra: 649435475  
649435476

☎ 943 363370- 361439



**ZUMETA  
JATETXEA**

Txoko alde, Tel.: 36 27 13

**ZUMETA MENUAK**  
(Gutxienez 2 lagunentzat)

- Etxeko ahate foie-a aran pasa eta pattarraz.
- Itsaski entsalada hozbero trufa zaporez.
- Zapoa txangurroz beterik eta itsaski saltsaz
- Aspizuna patata pure, ondo eta piliko piperraz haragi saltsetan.
- Etxeko azkenburuko dastapena
- Ogia eta kafea 3.675 pza. (pertsoneko)

**TABERNA**

**TRAGOXR**

**BAZKARIAK  
ETA AFARIAK**

Santuenea 2  
Tf. 9433627 3

## Zumartek antolatutako kontzertu pedagogikoak apirilaren 7 eta 8an

**K**ataluniarren egonaldia eta kontzertua bikainak izan ziren pasa den martxoaren 25ean Usurbilen. Sortutako giroa eta eskeini ziguten kontzertua oso onak izan ziren eta herritarrek eskeinitako harrera ere paregabea izan zen. Hala ere, oraingoan, urtero antolatzen ditugun kontzertu pedagogikoen berri eman nahi dizuegu. Kontzertu hauek beste herrietako taldeak ezagutu eta musika tresna ezberdinen erakustaldi bat izateko helburuarekin egiten ditugu.

Apiilaren 7an, ostirala, gaueko 21.30etan Zumarte Abesbatzak kontzertu berezi bat emango du Salvatore parrokiari. Abesbatza honek beste talde batzuekin batera egiten du saioa gehienetan, baina oraingoan kontzertu osoa bereaiek eskeiniko dute. Denbora asko daramate ekitaldi hau prestatzen eta mota ezberdinetako abesti asko entzungo ditugu. Sorpresa asko jasoko ditugula esan digute, beraz, ezingo dugu hutsik egin.



Bestalde, apirilaren 8an, larunbata, arratsaldeko 18.00tan Elizondoko musika eskolako talde instrumentalak entzuteko aukera izango dugu Udarregi ikastolako areto nagusian. Pianoa, eskusoinua, tronpetak, klarineteak, saxofoiak, abesbatza eta haizezko taldea izango dira bertan. Zumarte musika eskolako orkestra ere han izango da eta bukaeran, Elizondoko haizezko taldearekin batera zenbait pieza joko dituzte.

Kontzertu hau elkartrukaketa moduan antolatu da. Apirilaren 1ean Zumarte abesbatza eta orkestra Elizondora joan ziren eta bertako ikasleekin batera Ariztondo kultur etxean eskeini zuten kontzertua.

Beraz, asteburu honetan ere badago zer ikusia eta entzuna Usurbilen. Bertan espero zaituztegu.

**Zumarte Musika Eskola**

## Kataluniarrak Usurbilen



## Internet zerbitzua udal liburutegian herritar guztien eskura

Interneten bidez hara eta hona bidaiatzea modan jarri da azken urteetan. Hala ere ordenadore bat etxean edukitzea ez dago herritar guztien eskura eta oraindik ere asko dira zerbitzu hau erabili ezinik dauden herritarrak. Zubietako Lanbide Eskolan doaneko internet gela zabaldu zuten eta orain udaleko liburutegian ere zerbitzu hau herritarren eskura jarriko dute laister batean.

Udal liburutegitik internet sarean sartzea posible izango da laister. Bertan internet zerbitzua herritarren eskura jartzea erabaki dute, eta Aste Santuak pasa ondoren martxan jarrita egotea espero dute.

Hasiera batean ordenadore bakarra egongo da. **Maria Angeles Altuna** liburutegiko arduradunak esan digunez ez



dago ordenadore gehiagorentzat lekurik eta horrez gain herritarren erantzuna nolakoa den jakiteko nahikoa da ordenadore bakarra.

Ordenadore honen bidez interneten bidaiatzea ez da doain izango. Komunikazio

denbora neurtzeko tenporizadore bat jarriko dute eta interneten ibili nahi duenak zerbaile ordaindu beharko du erabili duen denboraren arabera. Hala ere zerbitzu honen erabilpenaren nondik norakoak ez dituzte oraindik zehaztu.

## Hiru lanposturen eskaintza

Liburuzain laguntzaile lanpostua eta bi lorazain laguntzaile kontratatzeko oinarriak onartu berri ditu udalak. Hiru lanpostuak lehiaketa bidez banatuko dira eta interesatuak dauden guztiek apirilaren 15a baino lehen aurkeztu beharko dituzte udalean beraien eskaerak.

Liburuzain laguntzaile lanposturako baldintzak hauek dira: 18 urte beteak izatea,

batxilergo edo FP tituluaren jabe izatea, hirugarren hizkuntz eskakizuna eta ezgaitasun kasutan sarturik ez egotea.

Lorazain laguntzaile bi lanpostuetarako lehiaketara aurkeztu nahi dutenek berriz, 18 urte beteta izan beharko dituzte eta lanpostuaren berezko funtzioak normalki betetzea galeraz dezakeen gaixotasun edo akats fisiko edo psikikorik ez izatea.

Jar ezazu  
hemen zure  
publizitatea

Telf. 943 36 03 21

**T XIKILINDO**

- G O Z O K I A K -

IZOZKIAK - FRESKAGARRIAK - FRUITU LEHORRAK

# Fagor Luzuriaga aurreko lurrak industriarako izan daitezke

**H**errian hainbat industrialde ditugu momentu honetan. Zumartegi, Osinalde, Ugarte, Ugaldea eta Atallu. Azken honetan lau zati banatu gabe zeuden oraindik, baina azken hilabeteetan lau enpresa ezberdinek hartu dituzte lur zati hauek. Orain industria zonaldea jartzeko lurrik gabe gelditu da Usurbil.


Enpresen aldetik ordea, eskaera ugari jaso ditu udalak azken hilabeteetan. Aritzetako autobidea egin ondoren N-1 autobidearekin eta A-8 autopistarekin lotura onak ditu herriak, eta hori ikusita enpresak eskaerak egiten ari dira etengabe.

Honen aurrean industria lurrak izendatu beharrean aur-

kitu da udala. Normen berrikuspenean industria zonalde berri bat aurrera ateratzeko pausoak ematen hasi dira.

Fagor-Luzuriagaren aurrean, bidearen bestaldean dagoen lurzatie industria lurrak bihurtzea da udalaren asmoa. Leku hori menditsua bada ere gaur egungo aurrerapenekin leku laua bihurtzea posible dela argi dute udaleko arduradunek.

Azken hogeit urteetan ikamika bat baino gehiago izan da industria jartzeko lurrak izendatzerakoan. Kalezarko erriban industrialdeak egin edo ez azken urteetan jende askoren ahotan egon den eztabaida izan da, baina udaleko arduradunek esan digutenez ez dute erriban industria zonalderik jartzeko inolako asmorik.



## Herriko ur ahoen azterketa egingo da




**S**uteren bat dagoenean suhiltzaileei deitzea izaten da lehendabiziko lana. Hauek etortzean dena konponduko dutela uste izaten dugu, baina ur-ahok aurkitzen ez badituzte arazoak izaten dira askotan. Herrian ur-ahok baditugu eta udaltzainek badakite non dauden, baina inoiz ez da aztertu hauen kokapena eta horren ondorioz ezin da jakin leku egokietan koka-

tuta dauden eta suteak direnean inguruak ondo babestuta ote dauden. Horregatik, herriko ur-ahoen kokapenak aztertu eta gerorako mantenua nola planteatu aztertzea komenigarria dela ikusi du udalak. Eraiki S.L enpresak egingo du datozen hilabeteetan ureztapen aho eta hidratanteen aurkikuntza eta kokatze azterketa orokorra.

**Zinkildegia**  
Lentzeria,  
gizonezkoentzat arropa,  
haurren jantziak,  
etxerako behar dituzunak

Aritzeta 1 behean.  
20170 Usurbil ☎ 943 36 17 87

**TABERNA-JATETXEA**




**ANTXETA**

EGUZKITZA, 4  
20.170 USURBIL


TEL: 943 37 03 44

**ZENDOIA-ENEA**

 **TABERNA** 

Gosariak, hamaiketakoak,  
eguneroko menuak eta  
bokatak

Kale Nagusia, 25 Tlf. 943 36 25 60



Jose Antonio Gorgojo

- Margolaria
- 45 urte
- Donostian tabernari lanetan dabil

## Artearen munduan murgilduta

**J**ose Antonio naiz ni. Gehienok ezagutuko nauzue urte asko baitaramazkit herri polit honetan. Pinturarengan dudan afizioa haundia dela jakingo duzue, beraz mundu honetan izan dudan ibilbidearen berri eman nahi nizueke.

Nik betidanik izan dut artearekiko zaletasuna. Nire estudioan zerbait egiten hasterakoan paisajea aztertzen dut lehendabizi. Ondoren ikatz erara zirriborro bat egiten dut mihisean, argiaren eta itzalaren norabidea bilatu eta bertara pasatzeko.

Nire kobazulo txikian lan egiten duen margolari bakartizat dut nire burua, eta harro sentitzen naiz nire garunean dagoen zerbait bihotzez egin dezakedalako. Betidanik hunkitu izan naute txoriek nahiz Karlos Zabala eta Zumetaren koadroek.

Karlos Zabala eta Amaia Kasasola irakasle genituen ikastaroko lagunekin egindako erakusketak izan ziren artearen mundu honetan eman nituen lehen pausoak.

Ondoren, nire lanak bakarrik ikus zitezkeen bi erakusketa jarri nituen, bata Frudisk-en eta Lasarteko Manuel Lekuona kultur etxean bestea. Pasa den urtean

erakusketen arloan hirugarren pauso bat eman nuen. Laneko lagun dudan Luis Rubio eta biok erakusketa lekuekin ditugun kontaktuez baliatzen gara gure lanak erakutsi ahal izateko.

Biok lan egiten dugun tabernan jarri genuen lehen erakusketa. Erakusketa honek besteek baino oihartzun haundia izan zuen, TeleDonostin gure erakusketari buruzko erreportaia bat eman baitzuten. Ondoren, Donostiako Lugaritz kultur etxean eduki genituen gure koadroak eta apirilaren 7tik 14a bitartean Lasarteko Manuel Lekuona kultur etxean egongo dira ikusgai gure lanak.

Erakusketa honetan egongo diren koadroetan kosaren legeak jarraituz, mihisean zabaldutako pintzeladen ergelkeria ezagutu daiteken "zerbait" konkretu batean urtzen den puntua bilatzen saiatzen gara. Honekin, eskemak hautsi eta pertsonen artean gizarte honek eraikitzen dituen hormak bota edo behintzat apaintzen ahalegindu nahi dugu.

Guggenheim museoa eta Moneoko kuboak eraikitzean eta kulturen egiten ari diren inbertsioen haunditzearekin kulturen ematen ari den garapena ikusita, bide onetik goazela uste dugu.







## Bota bertsoa

### Niko beti gogoan

Lehena, oraina eta geroa  
urak dakarrena urak daroa  
itsaso bat zen hire magala  
sortzailea ta eskuzabala  
ta gu txalupan,  
nola haurra sehaskan kulunkan  
olatu braustak hire gomutan

Suari berriz egurra botaz  
emankorra bezain sutua hortaz  
bertsotan berriz a ze txinpartak,  
arrazoi eta ziri galantak  
hauts haiz iadanik  
baina astinduz bazekiat nik,  
ez dek itzali sua oraindik.

Lurrarekin bat sortze beretik  
elikatzen gera denok lurretik  
Udarregin oinordeko antza  
hik landu huen bertso baratza  
jorra ta jorra  
hazia erein huen ta horra!  
Hark aurkitu dik lur emankorra

Haizeak nahi dun tokietara  
eramaten ote gaitu, ta hara!  
gu elkartu arazi gintuan  
haizea txistuz ta gu kantuan  
lagun betiko,  
gurekin hago behin ta betiko  
haizeak ez hau eraman Niko.

**Egilea:** Bota Punttuba bertso eskola

## Lehiaketa



### Zein da baserri honen izena?

Asmatzaileen artean Elhuyarrek  
eskainitako lau sorta aukeran:

1-Bi liburuko sorta: Etxe barrura-  
ko landareak eta Euskal Herriko  
Kostaldea.

2- Euskal Hiztegi Moderno bat.

3- Elhuyarren urte beterako  
harpidetza.

4- Bertsoen Mundua CD-Roma

Lizarraga zen azken aleko lehiaketaren erantzuna, Santuenetik Zubietara joaterakoan Zubietako kaxkora iritsi baino bihurgune batzuk lehenago bide bazterrean dagoena hain zuzen ere. Batzuek Lizarra ere deitzen diote, eta izen horrekin jaso ditugun erantzunak ere ontzat eman ditugu. Zubieta aldetik erantzun asko jaso ditugu eta zozketa egin ondoren-zubietar bati egokitu zaió Patrin tabernan afaltzeko aukera. **Arantxa Iturrioz** da oraingo honetan zorteduna. Zorionak!

# A genda

## APIRILAK 7 ostirala

- **Zumarte abesbatzaren kontzertua** Salbatore parrokiaren gaueko 21.30etan hasita.
- Usurbilgo Gazte Asanbladak antolatutako **areto futbol txapelketako partiduak** gauean frontoian.

## APIRILAK 8 larunbata

- Elizondoko musika eskolako talde instrumentalak eta Zumarte musika eskolako orkestrak **kontzertua** eskainiko dute Udarregiko areto nagusian arratsaldeko 18.00etan.

Usurbilgo Gazte Asanbladak antolatutako **areto futbol txapelketako partiduak** arratsaldez eta guez frontoian.

## APIRILAK 10 astelehena

- **Euskal prozesu demokratikoa-**

**ren aldeko konzentrazioa.** Bordatxo aurreko errotondan 20.00etan hasita.

## APIRILAK 14 ostirala

- Usurbilgo Gazte Asanbladak antolatutako **areto futbol txapelketako partiduak** gauean frontoian.

## APIRILAK 15 larunbata

- Usurbilgo Gazte Asanbladak antolatutako **areto futbol txapelketako partiduak** gauean frontoian.

## APIRILAK 17 astelehena

- **Euskal prozesu demokratikoren aldeko konzentrazioa.** Bordatxo aurreko errotondan 20.00etan hasita.

## OHARRAK

- ✓ **Ford Escort Turbo Diesel** kotxea daukat **salgai.** SS-4609

AS. Deitu 943 36 33 90 / 943 43 54 76 telefonotara.

- ✓ **Galtzaragainan dagoen taberna saldu nahi nuke.** Interesatuok deitu 943 36 45 98 telefonora (gauean deitu mesedez).
- ✓ **Rossignol markako snowboard tabla** daukat salgai fijasio eta guzti. Tel.: 943 36 51 80 Kami (gauean deitu).
- ✓ Udarregi ikastola aldean norbaitek giltza batzuk aurkitu baldin baditu deitu telefono honetara mesedez: 649 322873
- ✓ Garaje bat alokatzen da Zubiaurrenean. Tlf. 943 36 58 63
- ✓ Pisu bat saltzen da Usurbilen eliza inguruan. Telf. 943 21 3118 (Arratsaldez 17.00etatik aurrera)
- ✓ Kale nagusian 30 m<sup>2</sup> ko garaje itxia salgai. Prezioa: 4 milioi. Tlf.: 943 37 23 68


## Andatza K.K.E.k antolatutako XVII. ibilaldia: Usurbilgo mugak

- Apirilaren 9an Usurbilgo frontoitik irtengo da ibilaldia goizeko 8.00etan.
- Sendagile eta hornialdi zerbitzuak izango dira ibilbidean zehar leku jakinetan.
- Eguraldi txarra edo indar haundiagoagatik irteera ezeztatzea antolatzaileen esku gelditzen da.
- Bukaeran opariak zoketatuko dira.
- Izen ematea egun berean izango da.
- Ibiladiak zortzi ordu inguruko iraupena izango du eta Usurbilgo mugetatik ibiliko dira. Andatza aldetik Sarikola aldera, hemendik Tellandegitik Mendizorrotz ingurura eta kalezartik barrena berriz ere frontoi aldera.

**BORDATXO EDARITEGIA**

PINTXO BEREZIAK

Aritzeta, 2 Tel.: 943 37 10 42



**TXIRIBOGA TABERNA**

pintxoak, bokatak eta plater konbinatuak

Irazu kalea, 3 Tel.: 943 37 00 13




Kale Nagusia, 2 Tel. 943 36 59 43

## Opari berriak gure lehiaketan!!

Euskaldunok ez omen dakigu ezer ere egiten janari eta edaririk gabe. Ez da egia izango!

Makina bat afari banatu dugu guk ere gure lehiaketan, baina, hemendik aurrera, bes-telako opariak ere izango dituzue: liburuak, hiztegiak, CD-Romak, jokoak...sabela eze-zik, burua ere martxan jartzea osasungarria baita oso!



### III. Noaua! Ikerketarako dirulaguntzen banaketa

Dagoeneko zabalik da Noaua! Kultur Elkarteak urtero zabaldu ohi duen Ikerketarako dirulaguntzak banatzeko deialdia.

**Ikerlanaren baldintza :** Usurbilgo herriari buruzkoa izatea eta euskaraz burutua izatea.

**Zientzi alorra:** Edozein, beti ere Usurbilgo herriari buruzkoa bada.

**Eskaerak jasotzeko azken eguna:** 2000ko maiatzaren 12

**Proiektu hauek laguntzeko bideratuko den diru kopurua:** 250.000pzta

**Eskaerak honako helbidera bidali:**  
Noaua! Kultur Elkarte  
Bordaberri 3, Eguzkitzaldea  
20170 USURBIL, GIPUZKOA

**Informazio gehiago nahi baduzu, deitu gure egoitzara.**  
Telf.: 943-360321

**Posta elektronikoa:**  
noaua.k.e@euskalnet.net



## Etxez-etxe Noaua!ko bazkideak eginez

**Izena:** Aintzane

**Abizenak:** Aizpurua Apezetxea


**Adina:** 20 urte

**Eginkizuna:** Noaua! Kultur Elkarteko bazkideak egiten dabil etxez-etxe

**Beldurrik gabe ireki iezaiozue atea!**

**Egin zaitetz bazkide!**

# Egin txotx! Tolare-sagardotegietan




## AGINAGA



Aginaga, Tlf: 943 36 67 10  
Etxeko sagardoa dastagai urte osoan.

## ARAZETA




Zubieta, Tlf: 943 36 20 49  
Egunero txotxeko sagardoa dastatzeko aukera.

## ILLUNBE



Txokoalde, Tlf: 943 37 16 49  
Sagardotegi eta jatetxeko menua egunero.

## IRUIN



Zubieta, Tlf: 943 36 12 29  
Eguerdietan irekita eta igandeetan itxita.

## SAIZAR



Kalezar, Tlf: 943 36 22 28  
Igande gauetan eta astelehen eguerdietan itxita

## URDARRA



Aginaga, Tlf: 943 37 26 91  
Urtarrilaren 15etik irekita